

## Uda ikastaroak 2022 - Elkanoren oroitzapena:

### ondorioak eta galdera berriak

## AHOZKO KOMUNIKAZIOAK

### Helburua

Ikastaroko parte-hartzaileen aurrean ikerketa-proiektuak, lan-ildoak edo esperientziak azaltzeko aukera ematea.

### Gaia

Uda ikastaroko helburu eta ikerketekin erlazionatutako lan lerroak, hainbat disziplinetakoak izanik (ikus behean Uda Ikastaroaren aurkezpena eta egitaraua).


### UDA IKASTAROA'22. Aurkezpena

#### Elkanoren oroitzapena: ondorioak eta galdera berriak

Uztailak 7-8

Juan Sebastian Elkanoren Juan Sebastian Elcano eta bere lehen mundubiraren kommemorazioa landu du hiru urtez Elkano Fundazioak eta bada garaia ibilbide honetan ikasitakoa eta bildutakoa gizarteratzeko. Ezagutza berri asko bildu da 2019tik hona baita galdera berri asko. Horietako bat funtsezkoa da: zer oroitzen dugu, zergatik, nola, nortzuk, zertarako?

Galdera horien azterketa sakona egiteko antolatu nahi izan dugu uda ikastaro hau. Halaber, duela 500 urte gertaturiko horiek gaurko gure munduarekin zein gizartearekin duten lotura aztertzeko. Horrela, batetik bestelako begiradak eta kontaerak” deituriko hitzaldi eta solasaldi sortak deskolonizazioa eta mundializazioa izango ditu hizpide; bestetik, “itzuli berri bat munduari” izeneko blokeak egungo gizarteen erronkak errepatatuko ditu, hala nola gobernantza, justizia...



**1519 / 1522**

Elkanok munduari  
lehenengo aldiz  
bira eman zioneko  
500. urteurrena.

500 años  
de la primera  
circunnavegación  
a la Tierra  
de Elcano

500 years  
since the first  
circumnavigation  
around the Globe  
by Elcano.

Azkenik, laugarren blokean transmisioari eta oroitzapenei helduko diogu baina gerora begiratu: zer nolako begiradak iraganari, zer transmititu?

Helburuak:

- Lehen mundubiraren komemorazio honetan ikasitako eta gizarteratutakoaren inguruan galdera berriak sustatzea.
- 500 urte gertaturiko horiek gaurko gure munduarekin zein gizartearekin duten lotura aztertzea eta hausnarketa egitea.
- Kontaera eraikitzaileak sortzeko oinarriak elkarrekin aztertzea eta argitzea.

## Egitaraua

2022-07-07, osteguna

09:00 - 09:30 > Erregistroa

09:30 - 09:45 > Aurkezpena

09:45 - 11:30 > 1. solasaldia: zer, nola, zertarako... oroitzapen egin?

Iraganaren balioa azalaratu nahi dituzten galderak alegia. Iraganaren beharra orainari zentzua emateko

09:50 - 10:10 > lehen hizlaria: Agustín Arrieta (Filosofia doktorea, EHU)

10:10 - 10:30 > bigarren hizlaria: Itxaro Borda (idazlea, Baiona)

10:30 - 11:15 > elkarrizketa / galderak (moderatzailea: Igone Mariezkurrena, antropologa eta kazetaria)


11:15 - 11:45 Kafea

11:45 - 13:45 > 2. solasaldia: Bestelako begiradak eta kontaerak

11:50 - 12:10 > lehen hizlaria: Sirio Donay (arkeologa, Incipit-CSIC)

12:10 - 12:30 > bigarren hizlaria: Nelson Aguilera (antropologoa)

12:30 - 13:15 > elkarrizketa / galderak (moderatzailea: Igone Mariezkurrena)



**1519 / 1522**

Elkanok munduari  
lehenengo aldiz  
bira eman zioneko  
500. urteurrena.

500 años  
de la primera  
circunnavegación  
a la Tierra  
de Elcano

500 years  
since the first  
circumnavigation  
around the Globe  
by Elcano.

13:15 - 14:00 > Ahozko komunikazioak (3 x 15')

14:30 > Itxiera

2022-07-08, ostirala

09:00 - 09:15 > Hasiera eta egunaren aurkezpena

09:15 - 10:45 > 3. solasaldia: itzuli berri bat munduari

09:20 - 09:40 > lehen hizlaria: Álvaro Aragón (Historia doktorea, EHU)

09:40 - 10:00 > bigarren hizlaria: Agus Morales (5w aldizkaria)

10:00 - 10:45 > elkarrizketa / galderak (moderatzailea: Ander Izagirre, kazetaria eta idazlea)

10:45 - 11:15 Kafea

11:15 - 12:45 > 4. solasaldia: iraganetik gerora, zer transmititu

11:20 - 11:40 > lehen hizlaria: Carlos Ciriza (Universidad Pública de Navarra)

11:40 - 12:00 > bigarren hizlaria: Xabier Kerexeta (etnografoa, GFA)

12:00 - 12:45 > elkarrizketa / galderak (moderatzailea: Ander Izagirre)

12:45 - 13:45 > Ahozko komunikazioak (4 x 15')


13:45 - 14:00 > Uda ikastaroaren ondorioak eta itxiera

## Ahozko komunikazio proposamenak

Ahozko komunikazioak aurkeztu nahi dituzten pertsonak 250 hitzeko lan dokumentua bidali beharko dute [info@elkanofundazioa.eus](mailto:info@elkanofundazioa.eus) emailera, euskaraz zein gazteleraz, word formatuan eta datu profesionalak adieraziz: izen abizenak, lan esparrua, emaila eta telefonoa. Proposamenak aurkezteko epea: 2022ko ekainaren 20a.

## Proposamenen balioespena

Jasotako lan guztiak aztertu eta baloratu egingo dira irizpide hauek jarraituz:



1519 / 1522

Elkanok munduari  
lehenengo aldiz  
bira eman zioneko  
500. urteurrena.

500 años  
de la primera  
circunnavegación  
a la Tierra  
de Elkano

500 years  
since the first  
circumnavigation  
around the Globe  
by Elkano.

- o Uda ikastaroko helburu eta gaiarekiko lotura
- o Ezagutza berria sortzeko ahalmena eta gaiaren originaltasuna
- o Gaurko gizarterako erabilgarritasuna

Ekainaren 27a baino lehen jakinaraziko zaie egileei onartuak izan diren edo ez.

### Aurkezpenak

Ahozko aurkezpenak Donostiako Carlos Santamaria Zentruan, uztailaren 7 eta 8an egingo dira. Egile bakoitzak, gehienez ere, 10 minutu izango ditu aurkezpena egiteko.

### Aukeratutako lanen argitaratzea eta idazketa arauak

Elkano 500 Fundazioak, onartutako hitzaldi eta ahozko aurkezpenak argitaratuko ditu. Horretarako, onartutako aurkezpenen lan osoak (1.500 hitz), egileek, Word formatuan, [info@elkanofundazioa.eus](mailto:info@elkanofundazioa.eus) helbidera bidaliko beharko dituzte 2022ko uztailaren 31 baino lehen.

Testu guztiak Word formatuan idatzita igorri behar dira, eta egitura hau izan behar dute:

#### Izenburua

**Egilearen datuak:** Egilearen izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta kargua

**Laburpena:** 80-100 hitz bitartean

**Testua:** 1.500 hitz gehienez

**Bibliografia** (kasua balitz)

### Ahozko aurkezpenetarako gogoan hartu beharreko datak

**2022.06.20** Proposamenak bidaltzeko azken data.

**2022.06.27** Onartuak eta baztertuak izan diren ahozko aurkezpenen jakinarazpena.

**2022.07.31** Argitaratzeko aukeratuak izan diren lanak bidaltzeko azken eguna.



**1519 / 1522**

Elkanok munduari lehenengo aldiz bira eman zioneko 500. urteurrena.

500 años de la primera circunnavegación a la Tierra de Elkano

500 years since the first circumnavigation around the Globe by Elkano.